



OSKAR TEJEDOR:

"Zaintzaile anonimo asko daude, baina ikusezinak dira gizartearentzat"

Testua: Iker Barandiaran Zubiate (Arteman Komunikazioa)
Argazkiak: Josetxo Arantzabal



B1 Oskar Tejedorrek Telleriartekoa dela dio (Legazpiko auzoa) eta filmak egiten berandu hasi zela. Hogeita hamar urte zituela, Frantzian zuen **ingeniari** lana utzi eta zine-magintzan hasi zen. Aurretik, Kuba eta dantza, txalaparta eta Balentziagari buruzko dokumentalak egin ditu, baina martxoan estreinatu zen 'Cuidadores' lanak egin du gure artean **ezagun**. **Bizipen** pertsonal batetik **abiatuta**, Alzheimerra eta demenzia duten gaixoen **alboan** zaintzaileek bizi dutena eraman du pantaila handira.

Valladolideko SEMINCI-ko arduradunek nabarmendu dute 'Cuidadores' filmak erakusten duela "une gogorak inspirazio- eta garapen-iturri izan daitezkeela". Hala gertatu zaizu zuri, ezta?

Bai, gure amak halako egoera bizi izan zuen zaintzaile moduan, aita gaixotu egin zelako. Egoera hori **islatu** nahi nuen nire lan berrian, baina ez nuen pentsatu halako **oihartzunik** izango zuenik. Amak, ezinean, gure aita zaharren egoitza batera eraman behar izan zuenean konturatu ginen bera bezalako zaintzaile anonimo asko zeudela, baina guztiak ikusezinak zirela gizartearentzat. Ezin izan nuen **jasan** gizartea horretaz ez **jabetzea**, _____(1)

"Inork ez dit galdetzen nola nagoen". Esaldi horrek definitzen du ezin hobeto 'Cuidadores'-en bitartez erakutsi nahi izan duzun problematika eta arazoa-
ren **muina**. Nola zaude zu orain, zaintzaile hauen egoera azaldu eta horietako askori **AFAGI** (Gipuzkoako Alzheimerdun Gaixoen Senitartekoen **Elkartea**) moduko elkarten berri eman ostean?

Lan hau egin eta jendeari lagundu izanagatik oso **harro** nago. Nire asmoa zen_____ (2). Izan ere, zaintzaileetako asko depresioaren espiralean **murgiltzen** dira, eta beraiek ez **dira** horren **jakitun**. Honelako gaixo bat zaintzen duenak ez du **esker onik** jasotzen eta gizartea ere ahaztu egiten da beraiez; hori oso gogorra da.

Eta guk nola lagundu ditzakegu zaintzaileak?

Dokumental hau ikusi ostean, jendeak ez du Alzheimer edo beste dementziaren bat duen gaixoa bakarrik ikusiko, bi pertsona ikusten hasiko da:_____ (3). Horrez gain, hemendik aurrera zaintzaile askok jakingo dute laguntza bila norengana jo dezaketen. Zaintzaileak **neurtu** egin behar du gaixoari ematen dion maitasuna, norbera ondo ez badago ezin duelako gaixoa **zaindu**.

Zer ikasi duzu grabazioak egiten eman duzun urte eta erdian? Eta lan hau prestatzen pasa dituzun lau urteetan?

Pertsonaia hauek ezagutzeak **bihozberagoa** egin nau. Niretzat erabat terapeutikoa izan da, nik ere itxi gabeko **zauri** bat nuelako; dokumentala egitearen ondorioz, barre, negar, **zirrara** eta maitasuna jaso ditut. Nik itxi

"Ezin dut jasan gizartea ez ohartzea gaixoak zaintzen dituzten pertsonen bizi dutenaz"

gabeko liburu bat neraman gainean_____ (4). Aita oso tradizionala zen eta oso harreman hotza genuen. Gerora, baina, gaixotasunaren bitartez, **adiskidetu** egin ginen eta oso harreman **estua** izan genuen. Pentsa, aitzak gaixotu aurretik ez ninduen inoiz **ukitu**...

Ikasketez, ingeniaria zara eta horretan luzaroan aritu zinen...

Bai, Ingeniaritza Teknikoa eta Diseinu Industrial ikasi nituen eta Euskal Herrian zein Frantzia aritu nintzen lanean. Azken urteak Frantzia eman nituen multinazional batean. Soldata ona nuen eta asko bidaiatzen nuen, oso bizitza maila altua neukan, baina zerbaiten **hutsu-nea** nuen. Egia esanda, betidanik nahi izan dut artearekin lotutako zerbait egin. Hamazazpi urte nituela Arte Ederrak ikasi nahi nuen, baina gure familia **xumea** zen eta_____ (5). Horrez gain, gogoa daukat hamar urterekin arrebak Parisera eraman ninduela eta hango artearekin **txundituta** gelditu nintzela.

Eta noiz apurtu zenuen horrekin guztiarekin?

Lillen (Frantzia) lanean ari nintzela, bideo-arte ikastaro bat egin nuen eta gustatu egin zitzaidan. Gerora, Parisen zine-zuzendaritzako kurtso bat egiteko aukera izan



ABIATU.- Hasi. *Empezar*. Commencer.
ADISKIDETU.- *Reconciliar (se)*. Se réconcilier.
ALBO.- Ondo. *Al lado, junto*. Côté.
BIHOZBERA.- *Compasivo/a*. Compatissant/e.
BIZIPEN.- *Vivencia*. Expérience.
ESKER ON.- *Reconocimiento*. Reconnaissance.
ESTU.- *Estrecho/a*. Étroit/e.
EZAGUN.- *Conocido/a*. Connu/e.
HARRO.- *Orgullosa/a*. Orgueilleux/euse.
HUTSUNE.- *Vacío*. Manque.
INGENIARI.- *Ingeniero/a*. Ingénieur.
ISLATU.- *Reflejar*. Réfléter.
JABETU.- *Konturatu. Darse cuenta*. Se rendre compte.

JAKITUN IZAN.- *Ser conocedor/a de*. Connaissanceur/euse.
JASAN.- *Soportar*. Supporter.
MUIN.- *Esencia, meollo*. Essence.
MURGILDU.- *Enfrascarse*. S'absorber dans.
NEURTU.- *Medir*. Mesurer.
OIHARTZUN.- *Eco*. Echo.
TXUNDITU.- *Asombrar*. Étonner.
UKITU.- *Tocar*. Toucher.
XUME.- *Modesto/a*. Modeste.
ZAINDU.- *Cuidar*. Soigner.
ZAURI.- *Herida*. Blessure.
ZIRRARA.- *Emoción*. Emotion.



nuen eta hori egin ondoren, jada, _____(6): multinazionalako lana utzi eta Euskal Herrira bueltatu nintzen filmak egiteko asmoak **bultzatuta**.

Zaila izan al zen Balentziagaren soinekoa ehun-tzea?

(Barre). Balentziagaren dokumentala egitea oso gogorra izan zen, zailtasun handiak izan genituelako. Balentziaga Fundazioak ez zigun batere lagundu, eta informazioa **atzerrian** bilatu behar izan nuen: AEBetan, Ingalaterran, Frantzia... Niretzat Balentziaga jainko bat da. Modaren arbitro izan zen, Chanel eta Dior bere aurrean **makurtu** egiten ziren... Halako **ñabardurak** dituen pertsonaia daukagu, hemengoa bertakoa, eta oso gutxi dakigu berari buruz. Horrek bultzatu ninduen Balentziagari buruz ikertu eta lan hori egitera.

Denborak handitu egin al du Balentziagaren izena eta irudia?

Bai. Givenchyk behin esan zuen **ospea** lortzea erraza dela, baina prestigioa **eskuratzea**, berriz, oso zaila. Prestigioa denborarekin bakarrik lortu daiteke, _____(7). Balentziagak denborari eusten jakin zuen, eta konstantziari esker, uneoro garatzen eta hobetzen.

'Cuidadores' familian bizi izandakoaren isla da; Balentziaga, diseinuarekin batera, zure pasioetako bat; txalaparta, zure lurra eta haurtzaroa... Zertan datza zure lehenengo filma izan zen 'Ochumare: Orisha of the Rainbow'?

Entsegu bat izan zen, tamaina ertaineko film bat. Dantzaren oso zalea naiz eta Ana Iraola donostiarraren berri izan nuen. Iraolak hemezortzi urterekin Arte Dramatikoa ikastea erabaki zuen eta Kubako Ballet Nazionaletik ihes egindako Patterson dantza-irakaslea ezagutu zuen. Ezkondu eta afro-kubatar dantza berezia munduan barrena zabaltzen hasi ziren. Gerora, baina,

"Zaintzaileak neurtu egin behar du gaixoari ematen dion maitasuna, norbera ondo ez badago ezin duelako gaixoa zaindu"

Patterson hil egin zen eta **alarguna** Donostiara bueltatu zen dantzarekin jarraitu nahian. Nik, Ana Iraolaren bitartez, Pattersonen eta dantzaren historia kontatu nituen lan hartan.

Zein izango da zure hurrengo proiektua, orain buruan daukazuna?

Une honetan lau proiektuekin batera ari naiz lanean, horietarako finantzazioa lortzea oso zaila delako, baina horietako bat azalduko dizuet.

Joan den urteko abenduan Venezuelan eta Perun izan nintzen hainbat elkarrizketa egiten. Oso interesgarria iruditzen zait seme-alabak **jaioterrian** utzi eta beste herrialde batera lan bila joaten diren pertsonen esperientzia. Ustez egoera ekonomikoa hobetzeko joaten dira, _____(8). Izan ere, kasu gehienetan urte gutxirako joaten dira, baina gero asko **luzatzen** da **egonaldia**. Bitartean, ume horien haurtzaroa eta gaztaroa galtzen dituzte, jaioterrian beste zaintzaile batzuekin bizi direlako. Zerk motibatu dezake emakume bat seme-alabengandik **aldentzeko**? Eran-tzuna jakiteko, dokumentala ikusi beharko duzue...■

i

Cuidadores filmari buruzko informazio gehiago, helbide hauetan:

www.cuidadoreseldocumental.blogspot.com

www.facebook.com/cuidadores



B1

Jatorrizko testuan zeuden 8 esaldi bere tokitik atera eta hona ekarri ditugu, zein bere lekuan jar dezazun. Kon-tuan izan BI aukera SOBERA dituzula:

- A.- ezin izan nuen atzera egin:
- B.- eta horregatik egin nuen film hau.
- C.- gaixoa eta bere zaintzailea.
- D.- eta ez nuen hori ixteko bidea aurkitzen.
- E.- probetxuzko zerbait ikasi behar izan nuen.
- F.- baina beste arrazoi batzuk ere badirela esango nuke.
- G.- gaixoa eta familia.
- H.- ez lan on bakar batekin.
- I.- gizartea sentsibilizatzea eta zaintzaileei laguntzea.
- J.- eta hala dela erakutsiko du filmak.

ALARGUN.- *Viudo/a*. Veuf/veuve.
ALDENDU.- *Alejarse*. S'eloigner.
ATZERRI.- *Pais extranjero*. Pays étranger.
BULTZATU.- *Incitar, impulsar*. Inciter.
EGONALDI.- *Estancia*. Séjour.
EHUNDU.- *Tejer*. Tisser.
ENTSEGU.- *Ensayo*. Épreuve.
ESKURATU.- *Lortu*. Conseguir. Réussir.
IKUSTEZIN.- *Invisible*. Invisible.
JAIOTERRI.- *Lugar de origen, nacimiento*. Pays natal.
LUZATU.- *Alargar*. Prolonger.
MAKURTU.- *Inclinar (se)*. S'incliner.
ÑABARDURA.- *Matiz*. Nuance.
OSPE.- *Fama*. Renom.
ZAINTZAILE.- *Cuidador/a*. Surveillant/e.

